


## herrera

## Gasaren instalazioa finkatu gabe

Gasaren instalazioak hainbat eztabaida eta arazo sortarazi ditu Herreran. Aspalditxo Herri-Pe Auzo Elkarteak Donostiako Udal Gas Fabrikari informazio eskaria bidali zion eta zenbait hila bete igaro dira, informazioa Herrerrara iritsi arte.

Zenbait hizketa eta eztabaida izan arren, Donosti-Gaseko ordezkariak uztailean Herri-Peko ordezkariekin bilera izan zuten auzotarrei beharrezko informazioa emateko. Bileraren funtsa, Herreran egin behar diren obrak direla eta, gasaren instalazioaren nondik norakoak betirako finkatzea zen.

Gaiztarro, Montesol eta Txingurrik gasaren instalazioa egina dute, osorik ez bada behintzat partzialki. Honekin, San Inazio Ibilbidea eta Kanterako ingurunea etorkizuneko gasez hornituta izango dira. Berdin gertatzen da



Argazkia: Imanol

Herrera pasealekuarekin.

Hala ere, arazoa Jose Elosegri ibilbidea, San Luis enparantza eta inguruetakoa da nagusiki. Badirudi sektore hau arazo teknikoak direla eta, ez dagoela finkatuta eta ikertu gabe utzi dutela.

Baina Herri-Pek jakin ahal izan duenez, Jose Elosegri ibilbideko 114. zenbakiraino gas tuberiak eginak daudela kontsideratzen da eta beraz, «sarea berritza izango litzateke lan bakarra eta ez eraikitzea». Hau dela eta, Auzo

Elkarteak herrertar biztanle kopuru honi gas eskaera egiteko aukera eskaintzea erabaki du gas konpainiak ezagutu dezan zein den ingurune honekiko errealitatea.

Donosti-Gas konpainiak gas instalazioa kaleetan egiten du, alegia tuberiak gure portal azpitan uzten ditu. Beste gauza bat da bertatik gure etxetaraino tuberi horiek eramatea. Azken lan hau, enpresa pribatuek egiten dute. Jakinik oraindik Herrerrako zenbait kale edo

etxeetan gasaren instalazioa ez dagoela batere argi, kaltetuei mesedez eskatzen zaie gauzak erabaki baino lehen ondo pentsatzea.

Dena den, informazio gehiago jaso nahi izanez gero, Herri-Pe Auzo Elkartera hurbil daiteke jendea arrotsaldez.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)

**Oporrak amaitu dira gazte txokoan** Bidebietako Gazte Txokoak jadanik ireki ditu bere ateak eta prestatu ditu negurako ekitaldiak, Gazte Txokoa Juan Carlos Gerra kalean dago eta arratsaldero 6etatik 8etara bertako partaide zein antolatzaileekin hitzegin dezakezue.

Gazte Txokoan parte hartzeko 14-16 urte bitartean izan behar dituzue eta hori bai, ondo pasatzeko gogoia izan beharko duzue nahi eta nahi ez.

## Jose Luis Jauregi Harategia-Urdaitegia

Txirrita Bertsolaria, 66 ALTZA  
Tfnoa.: 39 18 99

## HIPER LARRATXO

Opariak - Barruko Arropa - Tresneriak  
Jostailuak - Bisuteria  
Bertsolari Txirrita 10 • 40 05 95 DONOSTIA

## TXIRRITA-ZOO

Txori denda

Txirrita bertsolaria 16,  
• 39 24 68

# Gure auzoan bertan badugu aukera



Gozo eta bonbol  
denda

Bertan eginak  
Etxez-etxeko banaketa

Txirrita bertsolaria, 3 • Tfnoa.: 391605  
ALTZA



Ordubeteko  
epean  
errebelatua

Larratxo pasealekua, 26 % 40 06 97  
DONOSTIA



Oinetakoak - Poltsak eta osagaiak  
Larratxo 16, • 39 14 15 DONOSTIA